

3. ERANSKINA. ZERGA - TASAK

- Oro har

Zerga - tasak	EBko egoiliarrek, Norvegia, Islandia	Gainerako zergadunak
	%19	%24

- Pentsioak eta antzeko gainerako prestazioak

$$\text{Bataz besteko tasa} = \frac{\text{Kuota}}{\text{Pentsioaren urteko zenbatekoa}} \times 100$$

Pentsioaren urteko zenbatekoaren muga - Euro	Kuota - Euro	Pentsioaren gainerako zatiaren muga - Euro	Tasa aplikagarria - Porcentaje
0	0	12.000	8
12.000	960	6.700	30
18.700	2.970	En adelante	40

- Kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako interesak eta bestelako etekinak %19
- Entitate baten funts propioetan parte hartzeagatik lortutako dibidenduak eta bestelako etekinak %19
- Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak edo partaidetzak eskualdatzetik edo itzultzetik eratorritako errentak %19
- Aurreko puntuan aipatutakoez bestelako ondare-irabaziak, ondare-elementuak eskualdatzean agerian geratzen direnak %19
- Lan etekinak lurralde espainiarraren egoitzarik ez duten pertsona fisikoek jasotzen badituzte, sasoiko langile atzerritarrentzat eraturako iraupen jakineko kontratuen ondorioz eta lan araudiak ezarritakoaren arabera %2
- 2. artikuluan aipatutako pertsona fisiko ez – egoiliarren lan etekinak, baldin eta pertsona fisikoen errentaren gainerako zergaren zergadun ez badira eta Espainiako misio diplomatikoetan eta kontsul ordezkaritzetan lan egiten badute, Espainiak bere egiten dituen nazioarteko itunetatik eratorritako berariazko arauen aplikazioa ezinezkoa denean %8
- Berraseguru eragiketetatik eratorritako etekinak direnean %1,5
- Atzerrian egoitza duten itsas edo aire nabigazioko entitateak direnean, baldin eta beren itsasontzi edo aireontziak Gipuzkoako lurraldean sartzen badira %4
- Ezarpen osagarria (IRNR Faren 19.2 artikulua) %19